

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Elementuen egitura atomikoaren azterketan oinarrituta, atomoen artean sortzen diren loturak deskribatu.	<p>1.1. Atomoen atomo-zenbakia, masa-zenbakia eta karga identifikatu ditu.</p> <p>1.2. Atomoen azpi-partikulak ongi marraztu ditu.</p> <p>1.3. Elementu kimikoen ezaugarriak bereizi ditu taula periodikoan oinarrituta</p> <p>1.4. Substantzien lotura kimikoak bereizi ditu, ezaugarrietan oinarrituta arrazoiak emanez.</p>
2. Atomoen arteko loturetan oinarrituta, substantzia kimikoak izendatu eta substantzia kimiko aipagarrienak deskribatu, formula kimikoa adieraziz.	<p>2.1. Substantzia kimikoen izena, eta dagokion formula kimikoa egoki adierazi ditu.</p> <p>2.2. Substantzia kimikoak ongi deskribatu ditu osatzen dituzten atomoak kontuan hartuz.</p>
3. Teoria atomiko molekularren bidez, oinarritzkoak diren erreakzio kimikoak interpretatu eta ekuazio doituen bidez adierazi.	<p>3.1. Erreaktiboaren aldaketa ondo deskribatu du, teoria atomiko-molekularrean oinarrituz.</p> <p>3.2. Erreaktiboaren aldaketa ondo irudikatu du, teoria atomiko-molekularrean oinarrituz.</p> <p>3.3. Erreakzio kimikoak ongi doitu ditu kalkulu egokiak eginez.</p>
4. Hainbat esparrutako erreakzio kimiko motak identifikatu eta komunikatu, gizartearen garapenerako duten balioaz jabetzeko.	<p>4.1. Erreakzio kimikoak ongi sailkatu ditu, ikasitako irizpideetan oinarrituz.</p> <p>4.2. Informazioan oinarrituta eta arrazoituz egoki adierazi du erreakzio kimikoaren garrantzia.</p>